



euskaldunentzat

DBH

Dagmar Reuter - Jürgen Wolff



Debekatuta dago, legeak zehazten dituen salbuespenetan izan ezik, obra hau edozein eratan berregitea, honen komunikazio publikoa eta moldaketa egitea, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo artikulua). CEDRO erakundeak (Centro Español de Derechos Reprográficos) (www.cedro.org) babesten ditu aipatutako eskubide horiek.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2007-10-18)

Maketazioa:

Erein

Marrazkiak:

Orsolya Racz

Aleman estilo aholkularitza:

Petra Elser

Euskararen arduradunak:

Mila Salterain eta Iratxe Eguzkizaga

© Dagmar Reuter, Jürgen Wolff

© EREIN. Donostia 2007

ISBN: 978-84-9746-384-3

L. G.: BI. 3273/07

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimategia: Grafman

Pol. industrial El campillo. P A2 Gallarta (Bizkaia)

T 94 636 91 94 F 94 636 93 33

DEUTSCH - EUSKALDUNENTZAT

DBH

Dagmar Reuter - Jürgen Wolff

Marrazkiak:

Orsolya Racz

Aleman estilo aholkularitza:

Petra Elser

Euskararen arduradunak:

Mila Salterain eta Iratxe Eguzkizaga



Gure eskerrik beroenak egitasmo honetan aurrera egiten eta oztopoak gainditzen lagundu digutenei:

Durangoko Kurutziaga ikastolako Mikel Eguren eta Leire Arenali, San Antonio Santa Rita ikastetxeko Begoña Andriori, eta baita Dorleta Etxezarreta irakasleari ere, beren ikasgeletako atea ikerketa paraleloari irekitzeagatik eta beren ikasleekin ariketak probatzeagatik.

Schwäbisch-Hall-eko Sibilla-Egen Schule Ainara Gantzegiri eta haren ikasleei, liburu honetan sartu ditugun hainbat gehigarri bidaltzeagatik.

Luis Miguel Alcibarri eta haren lagun bati, Durangoko liburu eta diska azokako atea zabaltzeagatik.

Durangoko E. L. Academy-ko ikasleei, beren kritika eta zuzenketengatik eta izan duten egonariagatik.

Nagore Arangureni, ikerketa paraleloaren aholkularitza estatistikoa-rengatik.

Sina Brauni, ikerketa paraleloarengatik.

Arantxa Martinezi, alemana/euskararen konparaketari buruzko ohar-rengatik.

Elena Martínezi, alemana/euskararen konparaketari buruzko iradokizun anitzengatik.

Jule Goñi Monterori, testuak probatzen laguntzeagatik.


Ikerketa paraleloaren galdetegiari erantzun zieten 69 ikasleei.

Azkenik nik, Dagmarrek, lanean jarraitzeko etengabeko adorea eman didatenei ere nire eskerrak eman nahi dizkiet:

Mila Salteraini, elkarrekin hartu ditugun te katiluengatik.

Iratxe Eguzkizaga, Zornotzako euskaltegiko irakasleari, akatsen bila beti aritu egon delako.

Anton Lizundiari, eguneko hogeita lau orduetan gure semeen jagolea izateagatik.



Liburu honek euskararen eta alemanaren arteko eta, oro har, euskararen eta atzerriko hizkuntzen arteko harremanak zuzenekoa izan behar duelako ideia hartu du abiapuntutzat.

Alde batetik, atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan ama hizkuntza kontuan hartzea didaktikoki lagungarria delako, bai gramatika arloan eta ariketak egitean, eta baita kulturarekin zerikusirik duten gaiak lantzean ere. Izan ere, ikasleek, elebidunak izanda ere, ama-hizkuntza hartzen baitute abiapuntutzat beste hizkuntzak ikasteko orduan: euskaldunen kasuan, euskara, alegia.

Gero eta ikasle gehiago dira Euskal Herrian ikasketa guztiak euskaraz egiten dituztenak. Horrek erronka berriak sortzen ditu atzerriko hizkuntzen irakaskuntzari begira.

Askotan euskara ez da hartu atzerri hizkuntzak ikasteko abiapuntu moduan eta, tradizioz, *etxeko* hizkuntzat hartu izan da, eta, kanpora irtetea, gaztelania erabili izan da. Gainera, irakasteko erabiltzen diren baliabide asko gaztelaniadunentzat pentsatuak dira. Baina euskara ama-hizkuntza duten ikasleentzat edo ikasketa guztiak euskaraz egiten dituzten ikasleentzat oztopoa izango litzateke atzerriko hizkuntzak zubi-hizkuntza baten bidez ikasi eta bereganatu behar izatea (gure kasuan, gaztelaniaren bidez), erromanikoak ez diren hizkuntzak ikasteko, batez ere.

Proiektu honen bidez, bestalde, euskararen eta euskaldunon eta beste hizkuntza eta kultura batzuen arteko harremana bultzatzeko ekarpen txiki bat egin nahi izan dugu. Euskara, gaur egun, hizkuntza modernoa da, irakaskuntzan, zientzian, komunikazioan eta gizarte arlo guztietan bere lekua hartu duena, eta zabalduz doana. Leku hori beste hizkuntza eta herriekiko harremanetan ere bete beharko luke, eta bide horretan eman beharreko beste pausu bat eskolako atzerri hizkuntzen irakaskuntzan erabiltzea izango litzateke. Hor dugu hizkuntzen plazerraz gozatzeko aukera, hizkuntzen normalizaziorako bidean barneratzeko, elkarren arteko komunikazioa eroso bilakatzeko, bai gure hizkuntzari, bai kanpoko hizkuntzei dagokienez.

Euskal Herrian alemana ez da lehenengo atzerritar hizkuntza gisa irakasten. Hala ere, alemana irakasten den eskola publiko eta pribatuetan, ahalik eta kalitatetik handieneko irakaskuntza eskaini nahi diegu ikasleei. Alemana ikastea aukera bat da hizkuntzak gustuko dituzten ikasleentzat, kultura desberdinak ezagutu nahi dituzten ikasleentzat edo bere etorkizun profesionalean alemana lagungarri izango zaiela uste duten ikasleentzat. Liburu osagarri honekin, ikasle horiek guztiak alemana ikas dezaten animatzea dugu helburua.

Gainera, liburua irakasleentzat ere lagungarri ere izatea espero dugu. Liburuaren amaieran irakasleei bereziki zuzendutako eta liburua nola erabili behar den argitzeko azalpen batzuk aurkituko dituzue.


Dena dela, liburu hau proiektu aitzindari bat da, liburua idatzi duten irakasleen esperientzian oinarrituta. Bide batez, irakasleak, ikasleak, gurasoak edo arlo honetan diharduzuen edo interesatuta zaudeten pertsona guztiak proiektu honetan parte hartzera eta gurekin harremanetan jartzera animatu nahi zaituztegu, liburu honen esperientziak eta proiektu honen gaineko ideiak elkarrekin partekatu eta garatzeko.

EuskAlema Proiektua, euskalema@euskalnet.net

1. Grammatik	11
1. Grammatik - Modul 1	12
GR 1. Die Aussprache / Ahoskera lantzen	12
GR 2. Die Buchstaben / Idazkera lantzen	13
GR 3. Die Nomen	15
GR 4. Die Possessivartikel	20
GR 5. Die Verben.....	24
GR 6. Die Personalpronomen.....	28
GR 7. Die Zahlen	31
GR 8. Der Aussagesatz	35
GR 9. Die Verneinung	38
GR 10. Der Fragesatz	42
GR 11. Lokale Präpositionen	46
1. Grammatik - Modul 2	52
GR 12. Demonstrativpronomen.....	52
GR 13. Akkusativ	55
GR 14. Modalverben.....	59
GR 15. Dativ.....	63
GR 16. Das unbestimmte “man”	68
GR 17. Vergleiche: gern und gut	70
GR 18. Der Plural	75
1. Grammatik - Modul 3	79
GR 19. Zeitangaben	79
GR 20. Es gibt	83
GR 21. Die Uhrzeit	85
GR 22. Zusammengesetzte Wörter	90
GR 23. Verben mit Vorsilben	92
GR 24. Imperativ.....	95
GR 25. Wechselp Präpositionen	101
2. Kommunikation	109
2. Kommunikation - Modul 1.....	110
KOM 1. Begrüßen und Verabschieden	110
KOM 2. Familie	112
KOM 3. Länder, Nationalitäten und Sprachen	115

2. Kommunikation - Modul 2.....	121
KOM 4. Freizeit und Verabredungen	121
KOM 5. Wünsche und Vorlieben	124
KOM 6. Wohnung oder Haus?	126
2. Kommunikation - Modul 3.....	132
KOM 7. Datum und Wochentage.....	132
KOM 8. Einladung zum Geburtstag	136
KOM 9. Schule	140
KOM 10. Tagesablauf.....	146
3. Interkulturalität	151
3. Interkulturalität - Modul 1	152
IKU 1. Ablehnen	152
IKU 2. Begrüßen + Verabschieden	153
IKU 3. Bitten + Danken	154
IKU 4. Du / Sie	155
IKU 5. Steckbriefe.....	158
IKU 6. Vorstellen.....	161
3. Interkulturalität - Modul 2.....	162
IKU 7. Essen und Rezepte.....	162
IKU 8. Bewerten	166
IKU 9. Kritisieren	167
IKU 10. Vorschlagen	168
3. Interkulturalität - Modul 3.....	169
IKU 11. Feste und Traditionen	169
IKU 12. Mitbringsel	172
IKU 13. Pünktlichkeit.....	172
4. Lerntechniken	177
4. Lerntechniken - Modul 1	178
LT 1. Deutsch ist einfach / Alemaniera errazago ulertzeko bidea	178
LT 2. Hören und verstehen / Ulertutakoaren entzumena lantzen	181
LT 3. Lesen / Irakurritakoaren ulermena lantzen.....	183
LT 4. Frei sprechen / Mintzamena lantzen	184
LT 5. Schreiben / Idazmena lantzen	185
Gebrauchsanweisung.....	189

1. GRAMMATIK



GR 1

Die Aussprache / Ahoskera lantzen

Ahoskera trebatzeko, kontuan eduki beharko ditugu honoko hauek; beraz, adi belarriak eta askatu ahoa.



1. Alemanez a, e, i, o, u bokalek bi aukera ematen dituzte: irekia + laburra edo eta itxia + luzea.

Entzun irakasleari, eta gero errepikatu:

a: Stadt <-> Staat, Park <-> Paar

e: denn <-> den, wenn <-> wen

i: in <-> ihn, Lippe <-> Liebe

o: kommen <-> Boot, Motte <-> Mode

u: Schulter <-> Schule, Tunnel <-> tun

Bilatu adibide gehiago:

2. Euskarak badu seigarren bokal bat ere, zuberotarren “ü”-a. Nola ahoskatzen da? Inoiz Niko Etxarten abestiren bat entzun duzu, ziur aski; bada, hark ahoskatzen duen moduan. Frantsesak bustiduradun bokal gehiago ditu, eta alemanak ere bai; honoko hauek, adibidez:

ä: Vetter <-> Väter, Zelt <-> zählt

ö: Löffel <-> Löwe, Götter <-> Goethe

ü: Hütte <-> Hüte, Müller <-> Mühle

Bilatu adibide gehiago:

Bukaeran, “e” oso ahula bihurtzen da (bokal erdia): bitte, danke

◇ Informazio gehiago *bitte + dankeren* erabilerari buruz: begiratu IKU *Bitten + Danken*

3. Beste hauek ahoskatzeko, ezpainak gogor estutu behar dira, ia-ia eztanda egiteraino. Hona hemen adibide batzuk:

Bass <-> Pass, Gebäck <-> Gepäck

Baina “w” fonema ezpain-horzkari bihurtzen da; hau da, goiko hortzez beheko ezpainari une batez heldu behar diozu:

Wald <-> Wald, Wellen <-> Wellen

Bilatu adibide gehiago:

4. Hona hemen txistukariak; “s” soinua egin behar duzu:

hassen <-> Hasen, nasse <-> Nase.

Bilatu adibide gehiago:

5. Orain sudurkariak egingo ditugu. Mingainak ezin du aho-sabairik ukitu:

lange, Schlange, danke, winken.

Bilatu adibide gehiago:



6. Eta azkenik, doinu bitxi bat, mexikarrena:

Esan ‘hijito’, eztarririk erabili gabe. Gero kendu ‘-ito’ eta: ich, nicht.

Bilatu adibide gehiago:

Ahoskerari buruz aritzeko, aprobeitza itzazu irrati-telebista alemanak. Nahiz eta asko ez ulertu, doinua eta azentua harrapa dezakezu. Musika zintak ere lagungarriak izango zaizkizu.

Gero eta zailago da Interneten musika aurkitzea, baina saia zaitez, adibidez, www.musicline.de-an ondo ahoskatzen duten musikari batzuk bilatzen, adibidez: Reinhard Mey, Underground, Backstreet Boys etabar. Dantzatu mingaina eta ondo pasa!

◇ Informazio gehiago ulermenaren hobekuntzari buruz: begiratu LT1 *Alemaniera errazago ulertzeko bidea* eta LT2 *Ulertutakoaren ulermena lantzen*.

◇ Informazio gehiago mintzamenari buruz: begiratu LT4 *Mintzamina lantzen*.

GR 2

Die Buchstaben / Idazkera lantzen

Hizkuntza gehienek dute letra bereziren bat; gaztelaniazko “ñ”-a, esate baterako. Alemanak ere baditu horrelako berezitasun batzuk. Edozein modutan ere, ez da zaila.

1. Batzuk gaztelaniatik ezagutzen dituzu:

Entzun irakasleari, eta ondoren irakurri hauek:

c Cäsar, Computer

q *Quark, Quatsch*

v *viel, vor*

w *wer, wo*

Horrez gain, guk alemanok “s” berezia asmatu genuen:

ß *heißen, Straße*

2. Bustidura duten bokalak ere badira, frantsesean bezala:

ä *Hände, Mädchen*

ö *hören, könnte*

ü *Glück, üben*

3. “x”-a, adibidez, gaztelaniaz eta euskaraz desberdin ahoskatzen da, eta “ei”-a alemanez eta euskaraz ere bai. Sarritan letra bera dela ematen du, baina doinua desberdina da. Hala eta guztiz ere, ez kezkatu ikusten eta entzuten denari buruz; konturatu orduko menderatuko dituzu honelako doinu eta letren arteko loturak.

Ez zaizu komeni apunteak hartzea (“hau honela... ahoskatzen da”); gero alemana eta euskara nahastuko zenituzke. Hona hemen garrantzitsuenen taula:

Pixkanaka-pixkanaka ikasiko dituzue. Entzun irakasleari, eta ondoren irakurri:

Bokalak:

äu *Bäume, Häuser*

ei *ein, Ei*

eu *heute, neu*

ie *hier, wie*

Kontsonanteak:

ch a-/au-/o-/u-: *acht, nach / auch, Bauch / doch, noch / Buch, suchen*

bestela: *Bücher, euch, ich, manche*

chs *sechs, wechseln*

h- *Haus, helfen* (Iparraldeko “h” aspiratua ezagutzen duenarentzat, berdintsua da)

-h *gehen, ihn* (bokala luzatuz)

j *ja, Junge* (ez Gipuzkoan bezala)

ll *alle, wollen*

-r *nur, wir* (“a” ahula ahoskatzen da)



Hartu atseden txiki bat, merezi duzu eta!

s	doinuduna:	<i>diese, sie</i>
	doinugabea:	<i>aus, Haus</i>
sch		<i>schön, schreiben</i>
sp-, st-		<i>spielen, Stein</i>
ts, tz, z		<i>Lotse, Katze, zu</i> (denak berdin, hau bai erraza)
tt		<i>hatte, Mutter</i>
x		<i>Hexe, Taxi</i>

- ◇ Informazio gehiago irakurmenari buruz: begiratu LT3 *Irakurritakoaren ulermena lantzen.*
- ◇ Informazio gehiago idazmenari buruz: begiratu LT5 *Idazmena lantzen.*

GR 3

Die Nomen

Alemanez letra larriz idazten dira izenak:



Haus



Ball

Hizkuntzak ere izenak dira alemanez; horregatik, letra larriz idazten dira:

Ich spreche **Deutsch, Baskisch, Englisch...**

Eta herritartasunak ere bai:



Ich bin **Deutscher**



Ich bin **Deutsche**

◇ Informazio gehiago izateko eta horri buruz ariketak egiteko, begiratu KOM *Länder, Nationalitäten und Sprachen* fitxa.

3.1. Der bestimmte Artikel

Izenek hiru genero izan ditzakete:

Ikusten duzue alemanez artikulua izenaren aurrean jartzen direla, eta ez doazela izenari lotuta, ezta?



der Ball



die Hand



das Baby

Pluralean *die* erabiltzen da hiru generoentzat:

die Bälle, **die** Hände, **die** Babys

Hobe da izenak dagozkien artikuluekin ikastea. Hala ere, hona hemen multzo batzuk:

der	Adibidez: egunak, hilabeteak, sasoiak, auto marka. Askotan -er bukaera duten hitzak: Kalender ...
die	-in, askotan -e, -heit, -keit, -ung, -ei, -ie bukaera duten hitzak: Freundin, Tasse, Gesundheit... zenbakiak, fruituak (baina: der Apfel), barazkia (baina: der Salat).
das	askotan hitz arrotzak, koloreak, letrak, aditz sustantibatuak, -chen, -lein, -tum, -nis bukaera duten hitzak: Mädchen, Tischlein, Zeugnis.

Alemanez izen hauek deklinatu egin behar dira!

Artikuluaren bidez izenak deklinatu egiten dira. Artikulua izenaren aurrean jartzen da beti. Ondo gogoan hartu hori, ez nahasteko. Begiratu:

der Freund

dem Freund

3.2. Der unbestimmte Artikel

Artikulu zehaztugabeak direnean ere hiru genero daude, baina maskulino eta neutro direnak berdinak dira:



ein Ball



eine Hand



ein Baby

Ein ez da artikulua bakarrik, bat zenbakia adierazteko ere balio du. Begira:

Was ist das?

Ein Haus.

Wie viele Häuser sind da?

Ein Haus.

Berdin dio etxeaz galdetu edo etxe batez galdetu. Alemanez erantzuna bera da: *Ein Haus*.

Pluralean, artikulua zehaztuaren kasuan, badakigu badela artikulua bat.

Eta zehaztugabeetan?

Hier sind Bälle, Hände, Babys.

Kasu zehaztugabeen alemanez ez dago artikulua pluralik.

Kontuz:



Hier sind **einige** Bälle.

Einige ez da ein-en plurala!

Einige-k, bat baino gehiago adierazten du, kopurua da hemen garrantzitsuena.

Pluralean bezala izen zenbakaitzak ez du zehaztugabea artikulurik, ez dakigulako zenbat azukre edo irin dagoen:

Wieviel Zucker?

Wieviel Mehl?



Butter
Computer
Diktat
Film
Geburtstag
Hamburger
Idiot
Kamera
Lied
Nacht
Opa
Papagai
Rad
Schokolade
Tasche
Vampir
Wasser
Zeitung

Bus
Comic-Heft
Dusche
Foto
Gitarre
Hemd
Idee
Känguru
Limo
Name
Omelett
Problem
Reis
Stress
Telefon
Video
Welt
Zettel

Bild
CD
Döner
Frage
Gemüse
Hose
Internet
Kakao
Lehrer
Netz
Orange
Pause
Ruhe
Schiff
Tourist
Vokabel
Wochentag
Ziel

2. Zure gauzen aurkezpena:

Zer dago zure logelan edo zure kajoí batean? Pentsa itza-zu sei gauza. Erakutsi zure adiskideari. Nahí izanez gero, ekar ditzakezue, etxetik zuen gustuko gauzak, ariketa hau egin baino lehen. Adibidez:

Hier ist **ein** Gameboy, und hier sind Spielkarten.

Hier ist **ein** Bleistift und **eine** Uhr.

Und hier sind auch Spielzeugautos und **eine** Batterie.



Aurkeztu etxetik ekarri duzun zerbait. Nola egingo duzue aurkezpena?

Der Gameboy ist teuer. Die Spielkarten sind neu. Der Bleistift ist kaputt. Die Uhr ist schön. Die Spielzeugautos sind schnell. Die Batterie ist alt.

Jakina, artikululu zehaztuak erabili behar dituzue orain, gauza ezagunak dira eta!

GR 4

Die Possessivartikel

Possessivartikelean gauza bi hartu behar dira kontuan batera.

Batetik, edutezko-izenordainen bukaera: izenaren generoa zein den ikusten da, artikululu zehaztugabeetan bezala:

	Artikululu zehaztugabea	Possesivartikela
maskulinoa	ein Roller	mein Roller
femeninoa	eine Oma	meine Oma
neutroa	ein Auto	mein Auto
plurala	Kinder	meine Kinder

Bestetik, edutezko-izenordainaren bitartez jakiten da; autoa, pastela eta abar norenak diren, adibidez:



“Das ist mein Auto”.



“Das ist unsere Tochter Karla”.



Das ist sein Roller.



Das ist ihr Kuchen.

Beheko taulan ezkerretan dauden izenordainak, pertsona-izenordainak dira. Erdian eta eskuinetan daudenak, *Possessivartikelak* dira. Ez da nahastu behar *Possessivartikela* pertsona-izenordainarekin. *Possessivartikelak* izena behar du, pertsona-izenordainak, ordea, ez, subjektua baita.

Bigarren zutabearen agertzen diren *Possessivartikelak*, izenak maskulino edo neutro direnean erabiltzen dira.

Hirugarren zutabearen agertzen diren *Possessivartikelak*, izenak femeninoak edo pluralak direnean erabiltzen dira.

ich	mein	meine
du	dein	deine
er	sein	seine
sie	ihr	ihre
es	sein	seine
wir	unser	unsere
ihr	euer	eure
sie	ihr	ihre
Sie	Ihr	Ihre

Wir üben:

1. Saiatu Possessivartikela egokia erabiltzen:

Batek norik zer egiten duen esango du, eta besteak galdetu egingo du:

Adibidez:

- | | | |
|---------------------------|--------------|---------------------|
| Helene lernt. | (Freund?) | Und ihr Freund? |
| Karla spielt. | (Schwester?) | Und ihre Schwester? |
| Peter kommt. | (Freundin?) | |
| Wir trinken. | (Freunde?) | |
| Boris schläft. | (Bruder?) | |
| Meike isst. | (Eltern?) | |
| Ich lache. | (Vater?) | |
| Du und Dennis schreibt. | (Lehrer?) | |
| Nils und Steffen rechnen. | (Lehrerin?) | |

◇ Begiratu KOM Familie fitxa.

2. Lotu abereok Ottopatxi edo Karlakontxitarekin. Aukeratu multzo bat eta egin esaldi bat hitz bakoitzarekin:

der Hund	die Katzen
das Kaninchen	die Maus

2.1. Das ist sein Hund.

2.2.

2.3.

2.4.

der Hamster	das Meerschweinchen
die Schildkröte	die Pferde

2.5. Das ist ihr Hamster.

2.6.

2.7.

2.8.



Taulan ikusten denez, batetik *ihr* erabiltzen da, gauza daukan pertsona femeninoa bada.

Bestetik, ezezagunekin hitz egiterakoan, haiengana zuzentzeko ere erabiltzen da *ihr*. Kasu honetan letra larriz idazten da *ihr*, *Sie Personal-pronomenean* bezala:

Singularretan:

Sind **Sie** Frau Meier? Ist das **Ihr** Sohn?
Sind **Sie** Herr Meier? Ist das **Ihre** Tochter?

Pluraletan:

Sind **Sie** Herr und Frau Meier? Ist das **Ihr** Sohn?
Sind **Sie** Herr und Frau Meier? Ist das **Ihre** Tochter?

3. *Hemen istorio bat daukazu. Erabaki zein **ihr** den kasu bakoitzean. Bete azpian dauden taulak:*



*Uschi Stein und Axel Rothe wohnen jetzt in Köln. **Ihr** Haus ist im Zentrum. Uschi hat einen Hund, Axel eine Schildkröte. **Ihr** Hund heißt Stromer und seine Schildkröte Lujzi.*

*Morgen fahren sie ohne **ihre** Tiere in Urlaub. Seine Schildkröte und **ihr** Hund kommen zu Uschis Mutter. **Ihr** Vater arbeitet bei Bosch in Hongkong. Ihre Mutter bleibt aber zu Hause. Das ist **ihr** erster Urlaub. Sie möchten **ihre** freie Zeit zusammen verbringen.*

Adibidez:

Uschi:

<i>maskulinoa</i>	<i>femeninoa</i>	<i>neutroa</i>	<i>plurala</i>

Uschi und Axel:

<i>maskulinoa</i>	<i>femeninoa</i>	<i>neutroa</i>	<i>plurala</i>
		<i>ihr Haus</i>	

Orain, osatu galdera hauek:

- 3.1. Herr Rothe und Frau Stein, wo ist Haus?
- 3.2. Frau Stein, wie heißt Hund?
- 3.3. Herr Rothe, wie heißt Schildkröte?
- 3.4. Frau Stein und Herr Rothe, ist das erster Urlaub?
- 3.5. Frau Stein, wo arbeitet Vater?

Eta azkenik:

4. Dagoeneko gorputzaren atalak ikasi badituzue, hartu ezazue aldizkari batetik argazki bat. Jarri mahai gainean bakoitzak hautatu duen argazkia. Orain bakoitzak bere pertsonaren ahoa, sudurra... deskribatu beharko du. Eta besteek asmatu!

Seine Füße sind gross und seine Augen blau. Seine Ohren sind lang.

OTTOPATXI!



GR 5

Die Verben

5.1. Verbkonjugation



ich	komme	arbeite
du	kommst	arbeitest
er,sie,es	kommt	arbeitet
wir	kommen	arbeiten
ihr	kommt	arbeitet
sie	kommen	arbeiten
Sie	kommen	arbeiten

Aditza jokutzen erraza bada ere, du, er, sie, es eta ihr direnean, jokatzekoan -e gehitzen zaie aditz batzuei, arbeiten aditzaren kasuan, adibidez.

T/d aditzoinarekin bukatzen diren aditzak dira.



Wir üben:

1. Jarri binaka eta egin elkarrizketa txiki-txiki batzuk, aditzaren jokoan ohitura hartzeko.

Zuk: Singst du?

Laguna: Ich singe.

Und er?

Er singt auch.

Spielen, arbeiten, trinken, telefonieren, malen, streiten, gehen, lieben, üben, warten.

Eta beste bat:

Zuk: Kommen Sie?

Ezezagunak: Ich komme.

Und Petra, kommt sie auch?

Sie kommt auch.

Aditzak, erregularrak zein irregularrak izan, bukaera berdinak dituzte. Baina irregularrek bokal bat aldatzen dute, *du* eta *er/sie/es* pertsoneri dagozkienean.

	geben	lesen	fahren
du	g ib st	l ie st	f ä hrst
er/sie/es	g ib t	l ie st	f ä hrt

Ikusi denez, lehenengo kasuan **e**-ren ordeztu **i**, bigarren kasuan **e**-ren ordeztu **ie** erabiltzen da, eta hirugarrenean, **a** jarri beharrean **ä**. Ez daude aditz asko-asko, hori egiten dutenak. Hauek dira garrantzitsuenak:

essen, fahren, geben, laufen, lesen, nehmen, schlafen, sehen, sprechen.

Beste bokal bat ere badago, baina hemen hiru garrantzitsu horiek bakarrik aurkeztu dira.

Wir üben:

2. Aukeratu azpian dauden pertsonen artean bat, eta galde-tu zer ari den egiten. Erantzuteko, aukeratu azpian dauden aditzen artean. Txandaka egin.



Zuk: Was macht dein Bruder gerade?
 Gelakide batek: Er isst gerade

Izenak	Aditzak
deine Oma, Harry Potter, der Papst, Shakira, die Deutschlehrerin, dein Freund, die Hobbits, Superman, deine Tante, Arguiñano...	telefonieren, singen, kochen, schlafen, lesen, frühstücken, spielen, duschen, schreiben, lernen, sprechen...



Alemanez, aditzak askotan ez du adierazten gauza bat (aditzak dioena) sarri, normalean ala une hartan gertatzen den. Aditzondoak erabiltzen dira zehaztasunak emateko.

Adibidez, goiko ariketan gerade aipatzen da, puntukaria adierazteko. Izan-aditza ere erabil daiteke hemen, puntukaria adierazteko. Egitura osatzeko *beim* + aditz sustantibatua erabiltzen da.

Ich spiele **gerade** = Ich bin beim Spielen.



5.1.1. Das Verb: sein

Izan eta egon ez dira bereizten alemanez, esanahiaren aldetik:

Sie **ist** hübsch.

Heute **ist** sie hübsch.

Alemanez ez da garrantzitsua, adibidez, orain ala betidanik den polita.

5.1.2. Das Verb: heißen

Norbait aurkezteko *heißen*, *sein* bezala erabili daiteke:

Das ist Peter = Sein Name ist Peter = Er heißt Peter.

Kontuan hartu, baina, *heißen*-ek alemanez beste esanahi bat ere baduela:

Was **heißt** das? Zer esan nahi duzu honekin?

Was **heißt** Tisch (auf Baskisch)? Zer da Tisch (euskaraz)?

Horiek esamolde arruntak dira, eta hasieran erabiltzen dira sarritan. Hobe da buruz ikastea.



◇ Begiratu IKU *Vorstellen* fitxa.

5.2. Die Position des Verbs

Perpauzaren elementurik garrantzitsuena aditza da, hark zehazten baitu zenbat eta zein objektu diren beharrezko. Aditz guztiek subjektua behar dute. Perpauz bakunean, aditza bigarren posizioan geratzen da beti. Perpauzen subjektua haren ondoan jartzen da beti; lagun-minak bezala, ezin ditugu bereizi:



Wir sind glücklich.



Glücklich sind wir.

Bai-ezerako galdera-perpauzetan aditza lehen posizioan jartzen da, galdetzailerik ez baitago, noski.

Seid **ihr** glücklich?

Üben wir:

1. *Ipini aditzak hutsuneetan (1.1.) eta egin beste testu bat (1.2.) aditz hauekin. Azpimarratu subjektuak. Non daude?*

arbeitet geht hat ist kommt lernt mag spielt wohnt

- 1.1. *Werner 15 Jahre alt. Er noch in die Schule. Er in Bottrop, aber er Hannover. Sein Vater jetzt bei einer Firma in Bottrop. Werner Englisch und Französisch. Er Sprachen. Nach der Schule er oft Fußball mit Wolfgang, seinem Freund. Aber heute er nicht. Er morgen eine Prüfung.*
- 1.2. *Klara 14 Jahre. Sie in das Freudberg-Gymnasium. Sie aus Mainz, aber in Frankfurt. Ihre Mutter jetzt bei einer Firma in Frankfurt. Klara keine Sprachen. Sie Mathe und Physik. Nach der Schule sie oft Gitarre, aber heute sie gleich nach Hause. Morgen sie einen Test.*

GR 6

6. Die Personalpronomen

Pertsona-izenordainak, *Personalpronomenak*, oso garrantzitsuak dira alemanez, eta beti jarri behar dira. Zergatik? Pertsona-izenordainak informazio osoa ematen duelako. Adibidez, nori eramango diot zerbait, nork esan du eta abar.

Kemal kauft Schokolade. **Er** hat Hunger.

Kemal macht **die Schokolade** auf. Er ißt **sie**.

Pertsona-izenordainak deklinatu egiten dira. Hiru kasu bereizten dira: Nominatiboa, akusatiboa eta datiboa.

Er ißt **sie**.

Goiko adibidean, *er* nominatiboa da eta *sie* akusatiboa.

Personalpronomena aditzaren ondoan joaten da beti. Nominatiboan dauden *Personalpronomenak* adibidez, aditzaren aurretik joaten dira normalean, esaldiaren subjektua direlako. Aditzaren aurrean adberbioren bat edo beste osagarri bat badago, orduan aditzaren atzealdera pasatzen dira *Personalpronomen* hauek.

Gerade ißt **er** sie.

◇ Informazio gehiago *Personalpronomen Akkusativ* edo *Dativean*; begiratu GR 13 *Akkusativ* eta GR 15 *Dativ* fitxa.

6.1. Die Personalpronomen: Er, sie, es, ... sie

Badakigu alemanez hiru artikulu daudela, bat izenaren maskulinoa, beste bat femeninoa eta bestea neutroa, eta pluralean artikulu bakarra. Gauza bera gertatzen da *Personalpronomenekin*: *Er, sie, es, ... sie*. Berdin da gauza edo pertsona izan. Beti bereizi behar da hitzaren generoa, hitz hori pertsona-izenordainez ordezkatu nahi bada.



der Vater **er**

der Tisch **er**



die Mutter **sie**

die Lampe **sie**



das Baby es
das Buch es



die Babys sie
die Bücher sie



1. Hori finkatzeko, jolas dezagun dominoan:

Egin hiru edo lau ikaslez osaturiko taldeak .

Ebaki eta banatu fitxak: izena/pertsona-izenordaina.

Saiatu domino egiten, izen eta pertsona-izenordain ego-
kienak lotuz.

der Computer	sie	die Katze	er	die Uhr	es
die Tasche	er	der Hund	sie	der Film	es
der Tisch	es	das Pferd	sie	die Zeitung	es
das Sofa	er	das Lineal	er	die Brille	er
der Baum	sie	das Mädchen	es	der Kuli	sie
die Oma	es	der Junge	es	die CD	es
Der Computer	sie	Die Katze	er	Die Uhr	es
Die Tasche	er	Der Hund	sie	Der Film	es
Der Tisch	es	Das Pferd	sie	Die Zeitung	es
Das Sofa	er	Das Lineal	er	Die Brille	er
Der Baum	sie	Das Mädchen	es	Der Kuli	sie
Die Oma	es	Der Junge	es	Die CD	es
Das Wörterbuch	er	Das Handy	sie	Das Kino	er
Wörterbuch	er	das Handy	sie	das Kino	er

6.2. Das Personalpronomen: Sie

Alemanian, kalem ezezagunekin hitz egiterakoan erabiltzen den forma Sie da. Berdin da pertsona bati hitz egin edo taldeari. Egoerak argituko digu zenbatez ari garen. Sie galderari *ich* edo *wir*-ez erantzun dakioko. Begiratu:

Brauchen Sie Hilfe?

1.



2.



1. Nein, *ich* kann das alleine.

2. Oh, ja, Das ist nett. *Wir* danken dir.

◇ Begiratu IKU *du* /*Sie* fitxa.

2. Eman baiezko erantzunak:

1. Ist sie von hier?

2. Sind Sie aus Russland?

3. Woher kommt sie?

4. Wohnen Sie in England?

5. Arbeitet sie in Berlin?

6. Lernen Sie Deutsch?

7. Spielst du Karten?

8. Machen sie Hausaufgaben?

9. Treiben Sie Sport?

GR 7



Die Zahlen

Bi eratakoak dira: kardinalak eta ordinalak. Dataz hitz egiteko, ordinalak erabiltzen dira alemanez.

7.1. Die Kardinalzahlen

Alemanez lehenengo hamar zenbakiak ondo ikasi badira, eta matematika apurtxo bat menderatuz, erraza izango da.

Elf eta *zwölf* era bereziak dira eta buruz ikasi behar dira.

Begiratu:

Dreizehn (3) (10)

13tik aurrerako zenbakiak atzekoz-aurrera jarrita egiten dira!

Vierundzwanzig (4 + 20) = 24

Hamarrekoak egiteko hamarra biderkatzeko taula menperatu behar da:

Zig da = (x 10). Orduan:

Vierzig: 4 x 10

20 desberdina da: *Zwanzig!*

1. *Beraz, 47, adibidez, nola esaten da?*

7 + 4 x 10 *Siebenundvierzig*

Batekoak lehenengo posizioan ipintzen dira eta gero hamarrekoak. Ez da ahaztu behar, zenbaki horiek elkarrekin idazten direla beti eta berdindiola luzeak geratzen badira ere.

Ehunekoak, *hundert*, eta milakoak, *tausend*, hamartarrak gehitzerakoan ez da *und*-ik gehitu behar. *Und* 100 arte erabiltzen da bakarrik:

sechsundfünfzig (56)

dreiundneunzig (93)...

2. *Orduan, nola esaten da 748?*

700: *Siebenhundert...*

8 + 40: *...achtundvierzig*

Zenbaki kardinalaren posizioa:



Wie viele Freunde hast du?
Drei Freunde.

Zenbakia izenaren aurrean joaten da beti.

Kontuz, *eins*, izenekin erabiltzen bada, **s** kendu beharko zaio eta artikuluz bezala jokatzeko da:

Ein Freund.

Machen wir ein paar Übungen:

3. Arbelean 1etik 100 bitarterainoko zenbaki batzuk ageri dira.

Talde bi egin eta talde bakoitzeko kide bat arbelaren aurrera joango da. Esandako kide bakoitzak klarion bana hartu (kolore desberdinetakoak).

Irakasleak arbelako zenbakiak esan ahala, arbelaren aurrean dauden ikasleok saiaturiko dira, esandako zenbakia biribil batez inguratzen, baina, jakina, zenbaki bat izango da biezat; beraz, bizkorren ulertu duenak egin ahal izango du biribila. Taldeko ordezkatzailerak txandatu, beti berdina izan ez daitezten.

Biribil gehien egin duen taldea izango da, noski, irabazlea.

4. Bakoitzak hartu zenbakia duen txartel bat: 10, 20, 30, 40, 50, 60, 70, 80 edo 90. Irakasleak hamarnakako zenbaki bat esango du ozen. Adibidez:

Fünfzig!

Orduan 50 zenbakidun txartela duen ikaslea, altxatu eta lerroa egiten hasiko da. Gero irakasleak beste zenbaki bat esango du, eta zenbaki hori duen ikasleak ere bere lekutik altxatu eta lerroan jarri beharko du.



Azkenean denak beheko mairazkian bezala bere lekuan jarri beharko dute, lerroa eginez. Saiatu zenbaki zailagoekin. Adibidez: 23, 35, 44, 51, 64, 72, 86, 93. Edo: 28, 32, 38, 45, 47, 51, 54,



59.



7.2. Die Ordinalzahlen

Ordinalak oso garrantzitsuak dira datak ipintzeko. Atzizki bat gehitzen zaie zenbakiei.

19arte, *-te* gehitzen zaio zenbakiari eta 20tik aurrera *-ste*. Lehenengo eta hirugarrena irregularrak dira: *der erste* eta *der dritte*.

Normalean artikuluekin erabiltzen dira. Artikulu hori zenbaki ordinalaren aurrean ipintzen da.

Datak idazteko, hau da aleman sistema: lehenengo eguna, ondoren hila-

A

<i>Feiertag</i>	<i>Wann?</i>	<i>Wer feiert?</i>
<i>Weihnachten</i>		<i>Portugiesen</i>
	<i>13.9.07</i>	<i>Juden</i>
<i>1. Tag des Schawwal</i>		
<i>Nationalfeiertag</i>	<i>14.07.07</i>	
<i>1.Tag des Ramadan</i>		<i>Muslime</i>
<i>Neujahr</i>		<i>Österreicher</i>
	<i>10.4.07</i>	

B

<i>Feiertag</i>	<i>Wann?</i>	<i>Wer feiert?</i>
	<i>25.12.07</i>	
<i>Neujahr</i>	<i>13.9.07</i>	
	<i>13.10.07</i>	<i>Muslime</i>
		<i>Franzosen</i>
	<i>13.09.07</i>	
	<i>1.1.07</i>	<i>Österreicher</i>
<i>8.Tag Passahfest</i>		

◇ Ariketak gehitzeko begiratu: KOM *Wochentage*, Datum fitxa.

GR 8

Der Aussagesatz


Perpausen sintaxia elementu ezberdinez osatzen da: subjektua, objektua, eta zenbait osagarri. Alemanez sintaxi hau aditz eta subjektuaren inguruan jartzen da. Subjektua aditzaren aurretik joaten da gehienetan. Aditza bigarren posizioan egoten da normalean, gero aditzarekin lotuta doazen objektuak eta, azkenik, osagarriak.

Wir fliegen morgen nach Berlin

Denbora, lekua edo modua adierazten duten osagarri guztiak ez dira nahitaezkoak esaldian, baina dagoen bakoitzak bere lekua du esaldian:

Ich gehe **morgen alleine ins Kino**.

Esaldi honetan denborazko, moduzko eta lekuzko elementuak daude. Haien ordena orokorra ondoko hau: lehenengo denbora, gero modua eta azkenean lekua ipintzen da.



Sintaxiaren elementu bakarra ere indartu daiteke. Elementu hori aditzaren aurrean ipini behar da, baina osagarri bat ipintzen den bakoitzean, subjektua aditzaren atzera doa. Kontuan hartu ezinezkoa dela osagarri ezberdin bat baino gehiago ipintzea!

Morgen fliegen wir nach Berlin.

Nach Berlin fliegen wir morgen.

Kontuan hartzekoa da: Adibideko *dann* eta antzerakoak erabiltzen direnean, haien atzean ezin da komarik jarri, eta esaldiaren sintaxia aldatu egin behar da, gainera.

Dann komme ich.

Nahiz eta guztiak oraindik ez ezagutu, hona hemen garrantzitsuenak:

andererseits, also, ausserdem, besonders, danach, dann, deshalb, endlich, manchmal, meiner Meinung nach, oft, schließlich, trotzdem.

Und jetzt üben wir:

1. Irakasleak esaldi labur bat jarriko du arbelean, gure lagun-minekin osatuta: pertsona-izenordain bat eta aditz bat. Adibidez:



Ich wohne.

Irakasleak hiru txartel-mota prestatu ditu: WANN, WIE, WO eta WANN!, WIE! eta WO!

Taldean pentsatu denborazko, moduzko eta lekuzko zein aditzondo ezagutzen duzuen: 'Hier? Da? Heute? Jetzt? In Berlin? Am Montag? Schnell? Gut?' etab. Egin itzazue zerrendak!

Ipini itzazue mahai gainean ahuspez hiru txartel mota. Hartu txandaka txartel bat eta, arbelean ipinita dagoen esaldiarekin eta zure zerrendako aditzondoekin, egin esaldi luzeago bat. Txartela harridura markarekin tokatzen bazazue, aditzondoa da garrantsitzuena eta lehenengo jarri beharko duzue! Gogoratu perpausen aldaketa eta egitura!

WO	WO	WO	WO	WO!	WO!
WO!	WO!	WANN	WANN	WANN	WANN
WANN!	WANN!	WANN!	WANN!	WIE	WIE
WIE	WIE	WIE!	WIE!	WIE!	WIE!

2. Was machst du zuerst? Was machst du dann?

Erabaki zer egiten duzun lehenengo ('zuerst') eta zer egiten duzun gero ('dann') eta idatzi esaldi batzuk:

Adibidez:

lernen

Pause machen



Das ist klar! Zuerst lerne ich. Dann mache ich Pause.

<i>frühstücken</i>	<i>Zähne putzen</i>
<i>Hände waschen</i>	<i>essen</i>
<i>duschen</i>	<i>joggen</i>
<i>Kaffee kochen</i>	<i>Kuchen essen</i>
<i>Tschüss sagen</i>	<i>Hallo sagen</i>
<i>schlafen</i>	<i>lesen</i>
<i>Tisch decken</i>	<i>kochen</i>
<i>nach Hause gehen</i>	<i>tanzen</i>
<i>lernen</i>	<i>Prüfung machen</i>

GR 9

Die Verneinung

Bi modu daude ezezko esaldiak egiteko, *nicht* edo *kein* erabiliz. Erantzuteko modu laburra *Nein* da. Esaldia ezeztatu behar denean, *nein* edo *nicht*; izena denean, *nein* edo *kein*, biak, esaldi berean sartu behar dira, begiratu ondoko adibide honetan:

Kommst du? **Nein!**

Kommst du? **Nein**, ich komme **nicht**.

9.1. Die Partikel “nicht”

Nicht erabiltzen da aditza, esaldi osoa edo aditzondoak ezeztatzeko. Adibidez:

Wir fliegen nicht nach Berlin.

Nicht ezeztatu nahi den elementuaren aurrean ipintzen da. Hala ere, arau batzuk kontuan hartu behar dira. Nahiz eta batzuetan *nicht* kokatzeko beste aukera bat izan, ondoko arau hauek lagungarriak izango zaizkizue:



Aditz nagusia	
Akkusativa	nicht, haien ondotik doa
Denborazko aditzondoak	
Denborazko aditzondoak	
Lekuzko aditzondoak	nicht, aditzondoaren aurretik doa
Moduzko aditzondoak	

Alemanez posible da esaldiaren lehen posizioan dauden elementuak ezeztatzea ere. Badakigu garrantzitsuena esaldiaren aurreko aldean ipintzen dela; orduan:

Nicht nach Berlin fliegen wir. (Wir fliegen **nach Rom!**)

Indartu egin nahi bada, *nicht* eta garrantzitsuena aditzaren aurrean ipiniko dira.

Hala ere lehenengo adibidea maiz erabiltzen da bigarren kasuan ere.

9.2. Die Partikel “kein”

Kein izena ezeztatzeko erabiltzen da. Izen honen aurrean artikuluzehaztugabea egon daiteke edo inolako artikulurik gabe ere ager daiteke.

Kein izenaren aurrean jartzen da, artikuluzehaztugabea bezala eta hura bezala jokatu behar da. Pluralean ere modu bakarra dago:

	artikulu zehaztugabea	kein partikula
maskulinoa	ein Buch	kein Buch
femeninoa	eine Blume	keine Blume
neutroa	ein Boot	kein Boot
plurala	Bücher, Blumen, Boote	keine Bücher, keine Blumen, keine Boote



Hast du **ein** Buch?

Ich habe **kein** Buch.

Badakigu, pluralean bezala, izen zenbakitzak ez duela zehaztugabeko artikulurik. Horregatik ezeztatzerakoan ere *kein* erabiltzen da:



Hast du Geld?

Ich habe **kein** Geld.

Konparatu:



1. Ich bringe **das** Buch **nicht** mit.



2. Ich bringe **kein** Buch mit.

1. Beti eta argi bereizten da kasu konkretua (hemen liburu konkretua): apalean dagoena ez du ekarri Ottopatxik.
2. Eta kasu ez konkretua (hemen inongo libururik): Ottopatxik poltsan ez du libururik ekarri.

Hitz batez:

kein oder nicht?

keine Freundin, kein Haus kein Geld, keine Zeit.	izena + artikulu zehaztugabea edo artikulu gabe: kein
---	---

Ich komme nicht	aditza: nicht
Ich komme nicht allein	moduzko aditzondoia: nicht
Ich komme nicht mit dem Auto	lekuzko aditzondoia: nicht
Ich komme heute nicht	denborazko aditzondoia: nicht
Ich sehe das Haus nicht.	izena + artikulu zehaztua: nicht

◇ Begiratu IKU *Ablehnen* fitxa.

Wir üben:

1. Banatu izenak dauzkaten txartelak . Egin hiruko talde bat. Ipini beste txartelak (-, +) mahai erdian. Ezeztatzeko (-) eta baietzatzeko (+).

Pertsona bat galderak egiten hasiko da: 'Hast du?' Bere taldekideak mahaiatik txartel bat hartu behar du, galdera ezeztatu ala baietzatu behar duen jakiteko. Kontuan hartu galderan artikulurik erabili behar duzuen ala ez:

Hast du Geld? (-) Nein, ich habe kein Geld.

(+) Ja, ich habe Geld.

Baina

Hast du ein Fahrrad? (-) Nein, ich habe kein Fahrrad.

(+) Ja, ich habe ein Fahrrad.



Kraft (f)	Geld (n)	Zeit (f)	Arbeit (f)
Geschwister (pl)	Fahrrad (n)	Cola (f)	Geduld (f)
Rollschuhe (pl)	Uhr (f)	Handy (n)	Comic-Hefte (pl)
Probleme (pl)	Freunde (pl)	Heft (n)	Lust (f)

-	-	-	-	-	-	-	-
+	+	+	+	+	+	+	+

2. Es ist Sonntag.

Asmatu zure taldekideekin edo denen artean arbelean zer egiten den gustukoen 'Sonntag'-ean!

SONNTAG:

Wir spielen viel.

Wir treffen Freunde.

...

Eta gero galdetu zein izango litzatekeen zuentzat 'Sonntag' aspergarriena? Jakina, egindako esaldiak ezeztatu behar dituzue lehendabizi, eta jakingo duzue!

Adibidez:

Wir spielen nicht viel.

Wir treffen keine Freunde.

GR 10

Der Fragesatz












Informazioa eskuratzeko galderak galdetzaileak behar ditu. Bai-ezerako galderak, ordea, ez dauka galdetzailerik. Egin den ala egin ez den jakiteko erabiltzen dira.

10.1. W-Fragen

Alemanez *W*-galdera erabiltzen da, informazio konkretua (nor, noiz, zenbat, zergatik) nahi denean. Erabiltzen diren galdetzaileak beti *W*-z hasten dira.

1. Begiratu azpiko taula hau eta bete hirugarren zutabea, zure irakaslearekin, adibidean bezala esaldiak eginez:

Galdetzailea:	Horri buruz galdetzen da:	Adibidea:
Wann?	Denbora	Wann kommst du?
Warum?	Zergatia	
Was?	Gauza (subjektua, objektu zuzena edo zeharkako objektua)	
Wer?	Pertsona (subjektua) Nominativ	
Wen?	Pertsona Akkusativ	
Wem?	Pertsona Dativ	
Wie?	Modua	
Wo?	Lekua   	
Wohin?	Lekua   	
Woher?	Lekua   	
Wie viel?	Kopuru ez zenbakarria	
Wie viele?	Kopuru zenbakarria	

Kontuz...

Wer-galderarekin! Galdetzailea deklinatu egin behar da. Nork egin duen edo nori gertatu zaion jakin behar da.

Was? (*zer?*), berriz, ez da deklinatu behar. Subjektuaz eta osagarri zehaztuaz galdetzen da.

Wer- galderak subjektuaz galdetzen badu, aditza hirugarren pertsona singularrean erabiltzen da beti, nahiz eta bost lagun etorri:



Wer kommt?

Drei Freunde kommen.

Wie viel, Wie viele- galderekin: *Wie viel* gauza abstraktu edo zenbatu ezienezkoari dagokio. Horregatik izena beti singularrean erabiltzen da:

Wieviel Geld?

Wie viele, ordea, gauza konkretuez galdetzeko erabiltzen da, zenbatu daitezkeenez; beraz plurala erabil daiteke:

Wie viele Bücher?

10.1.1. Syntax

Galdera-perpausetan ere kontuan hartu behar da aditzaren posizioa.

Galdetzailea bada, esaldiaren hasieran jartzen da eta aditza bigarren posizioan:

Was hörst du?

10.2. Entscheidungsfragen

Galdera hauei beti *ja*, edo *nein*-ez erantzuten zaie.

10.2.1. Syntax

Aditza bi kasutan bakarrik ateratzen da bere bigarren posiziotik: bai-eze-rako galdera denean eta agintera denean. Hemen bai, aditzaz hasten da esaldia. Baina begiratu non dagoen perpausaren subjektua:



Hörst du Musik?

Hau da: Subjektua bigarren posizioan dago! Aditzaren ondoan.

Machen wir ein paar Übungen:


2. Saiatu ahalik eta galdera gehien egiten. Hartu galdetzaile bat. Adi ibili aditzaren jokabidearekin, lotu pertsona-ize-nordain egokienarekin. Badago aukera gehiago?

WANN	bist	er	Deutsch
WOHIN	spricht	sie	zu Hause
WO	lernen	du	nach Hause
WAS	geht	sie	eine Party
WIE	isst	Sie	allein
WER	machen	ihr	eine Pizza

Adibidez: Wann geht sie nach Hause?

3. Orain jarraitu hauekin. Egin galderak. Hirugarren zutabean dauden elementuak behin baino gehiagotan erabil ditzakezue.

Kontuan hartu lehenxeago esandakoa: denborazko osagarria lehenik, eta lekuzkoa ipintzen da azkenik.




fahrt, telefoniert, seid, spielen, schreibst, liest	er, sie, Sie, du, ihr	heute, nach Berlin, oft, allein, bei Peter, Karten, gern, viel
---	-----------------------	--

Adibidez: Fahrt ihr oft nach Berlin?

GR 11

Lokale Präpositionen



Jatorria, noraino goazen edo non gauden zehazteko, *Präpositionen* erabiltzen dira alemanez. Izen-sintagmaren aurretik doaz.

Wo?

Ottopatxi ist bei Julio Tequila. Das Flugzeug → landet **in** Mexiko.

Hemen, Ottopatxi non dagoen eta hegazkina non lurreratu den adierazten da.

Woher?

Ottopatxi kommt **von** Mustafa. Das Auto 🚗 kommt aus Hamburg.

Hemen, Ottopatxi nondik datorren eta kotxea nongoa den.

Wohin?

Ottopatxi geht **zu** Frau Weigand. Der Bus 🚌 fährt **nach** Italien.

Eta hemen, Ottopatxi noren etxera doan eta autobusa nora doan.

Adibideetan ikusi da, hiru galdetzaile egon arren, sei *Präposition* ezberdin erabiltzen direla.

Zergatik? Lehenengo, pertsona edo lekua bereizten dira. Gero, lekua denean, berriro bereizi behar da, zein leku den. Hau kontuan hartu eta gero hautatu behar da *Präposition* egokia. Ondoko hauek dira:

	Wo?	Woher?	Wohin?
lekua	in, bei	aus, von	in, nach, zu
pertsona	bei	von	zu

Kontuan hartu, baita ere, zein kasu erabiltzen den *Präposition* bakoitzera-ko. Oraingoaz goian aipatu diren adibideak, hau da, izen berezietan erabiltzen direnak, aztertuko ditugu bakarrik, artikuluak ez direlako ipini behar.

11.1. mit Eigennamen

Begiratu ondorengo taula:

1. Zergatik ez duzue taula betetzen nahi dituzuen leku eta izenekin? Egin hasieran ikusten dituzuen esaldiak antzekoak.

	1. Woher? ☒→	2. Wohin? →☒	3. Wo? ☒
	<i>aus, von</i>	<i>nach</i>	<i>in</i>
Stadt	<i>Hamburg</i>	<i>Athen</i>	
Land		<i>Italien</i>	<i>Mexiko</i>
	<i>von</i>	<i>zu</i>	<i>bei</i>
Vorname, Name	<i>Mustafa</i>		<i>Julio Tequila</i>
Frau/Herrn		<i>Weigand</i>	

1. **Woher** galderari erantzuteko *aus* eta *von* erabil daitezke, herriaren edo hiriaren izena bada. Beraz, noiz erabiltzen da *Präposition* bakoitza? Begiratu marrazkiak:



Woher kommt Ottopatxi?

Aus-ek jatorria adierazten du.

Aus München.



Woher kommt Ottopatxi?

Von München.

Kasu honetan Ottopatxi ez da bizi Münchenen. Agian ikastera edo eroatera joan da hara eta orain etxeratu egin nahi du.

Woher galdeari erantzuteko, *von* *Präpositiona* erabili beharko da izenekin.

2. **Wohin**, herrira edo hirira zoazela erantzuteko nach *Präpositiona* erabiltzen da (badaude salbuespen batzuk). Izen bereziak direnean *Präpositiona* artikulurik gabe doa.

Pertsonari dagokionean, zu erabil daiteke.

3. **Wo** galdetzen badugu eta herriaren edo hiriaren izenak direnean *in Präpositiona* eta pertsonaren izena denean bei *Präpositiona* jarri behar ditugu.

11.2. ohne Eigennamen

1. **Wo** galdetzen badugu baina herriaren edo hiriaren izena ez bada, *in Präpositiona* artikulua datiboan jarri behar dugu:



Wo ist Ottopatxi?

In dem Wohnwagen.

Wo galderari pertsona batekin zaudela erantzuteko *bei* erabiliko duzue. Hemen ere, izena bada, eta artikulua erabiltzen bada, *bei*-rekin doan artikulua datiboan jarriko dugu:



Wo ist Ottopatxi?

Bei der Freundin.

2. **Woher** galderari erantzuteko *aus* eta *von Präpositionak* izen arruntekin erabiltzen badituzue, artikulua behar duzue, eta honi ere datiboa jarri beharko zaio.

Woher kommt Ottopatxi?



Aus dem Haus.



Von dem Briefkasten.

Aus ala von erabili behar den bereizteko, ea leku baten barruan gauden edo barrura sar daitekeen jakin behar da. Lehenengo kasuan *aus* erabiltzen da, bestela *von*. Adibidez gutunontzitik zatozenean, *von* erabili behar duzu. Zergatik? Gutunontzi barrura ezin zarelako sartu *zu*, ezta?

3. Ikusten da, **Wohin** galderari pertsona batengana zoazela erantzuteko *zu Präpositiona* erabiltzen dela. Izena arrunta bada, *zu Präpositiona* artikuluekin erabili behar da. Artikulu hori datiboan doa:



Wohin fährt Ottopatxi?

Zu der Freundin.



Leku batera zoazela, erantzuteko, zenbait aukera ditugu. Oraingoz hau bakarrik: *Zu Präpositiona* lekua adierazteko erabil daiteke. Izena artikuluekin erabiltzen bada, *zu* datiboan doa.

Wohin geht Ottopatxi?

Zu dem Kino.

Hitz gutxitan:

	1. Wo? in + Dat	2. Woher? aus + Dat	3. Wohin? nach + Dat
maskulinoa neutroa	in dem = im	aus dem	nach Berlin
femeninoa	in der	aus der	
plurala	in den	aus den	

	1.Wo? bei + Dat	2.Woher? von + Dat	3.Wohin? zu + Dat
maskulinoa neutroa	bei dem = beim	von dem = vom	zu dem = zum
femeninoa	bei der	von der	zu der = zur
plurala	bei den	von den	zu den

11.3. Die Ausnahme: Von zu Hause, nach Hause, zu Hause

Esamolde hauek salbuespenak dira:

Zu Hause erabiliz *Wo* galderari erantzuten zaio.

Nach Hause erabiliz *Wohin* galderari erantzuten zaio.

Von zu Hause erabiliz *Woher* galderari erantzuten zaio.



◇ Begiratu KOM Länder, Nationalitäten und Sprachen fitxa.



Üben wir:

2. Egin ezazu elkarrizketa labur bat zure adiskideekin. Hartu dadoa eta bota. Agertzen den zenbakia beheko zutabeko Präposition bati dagokio:



<i>in</i>	1
<i>bei</i>	2
<i>aus</i>	3
<i>von</i>	4
<i>zu</i>	5
<i>nach</i>	6

Orain egin esaldi bat, nahi baduzu ondorengo taulan azaltzen diren hitzekin. Adibidez:

Ich bin in Berlin.

Zure adiskideak berriro galdetu behar dizu, ziurtazteko:

Bitte, wo?

Erantzun:

In Berlin.

<i>Haus</i>	<i>Wohnwagen</i>	<i>Freund</i>	<i>München</i>	<i>Mexiko</i>	<i>Küche</i>
<i>Schule</i>	<i>Oma</i>	<i>Paris</i>	<i>Kino</i>	<i>England</i>	<i>Michael</i>

3. Jarri ☒ marka!

	WO?	WOHIN?	WOHER?
<i>Ich bleibe zu Hause.</i>			
<i>Wie weit ist die Schule von zu Hause?</i>			
<i>Peter macht zu Hause seine Aufgaben.</i>			
<i>Wir kommen immer pünktlich nach Hause.</i>			
<i>Der Lehrer kommt von zu Hause, nicht aus der Schule.</i>			
<i>Die Kinder nehmen den Hund mit nach Hause.</i>			

4. Badakizu nondik ekarritakoak diren zuk jaten eta edaten dituzun elikagaiak?

Adibidez:

Woher ist die Milch?

Aus Berriz? Von Eroski? Von Oma?

und die Eier, die Cola, der Käse, das Wasser, die Schokolade, die Chips, der Jogurt ...????



GR 12

Demonstrativpronomen

Jadanik badakigu alemanez artikuluek generoa adierazten dutela eta ize-naren aurrean jartzen direla; berdin gertatzen da erakusleak direnean. *Diese* edo *jene* artikulua ordez erabiltzen dira. Baina hau oso zentzu formalean da. Horregatik eguneroko bizitzan beste modu batean erabiltzen da. Arruntago, ezagunagoa da zuretzat beste modu hau. Begiratu: Lehenengoan edozein ur nahi du, egarri baita.



Ich brauche Wasser.

Bigarrenean, ordea, ez du edozein ur eskaintzen, izotzgailuan dagoena baizik! Honetan erakusle bat behar dugu. Artikulu zehaztuek betetzen dute funtzio hori. *Der, die, das hier* edo *da* gehitzen da, artikulua indartzeko eta gauza edo pertsona hurbil edo urrun dagoen bereizteko. Beraz *möchtest du das Wasser hier* dioenean, hurbileko uraz ari da, eta, *möchtest du das Wasser da*, urrunago dagoenaz ari da. Honezkero ohartuko zineten *da* edo *hier* izenaren atzean jartzen direla.



Möchtest du das Wasser hier?

Marrazkiei begiratzuz esaldi batzuk egiten saiatuko gara:

Das Mädchen



Zugandik urrun ala hurbil dago?

Das Mädchen da.

Orduan, urrun, ezta?

Das Mädchen da ist Karla Kontxita.

Beste adibide bat?

Der Junge

Urrun ala hurbil dago? Hurbil!

Der Junge hier ist elf Jahre alt.

Gauzak direnean oso normala da izenaren ordean, pertsona-izenordaina erabiltzea. Okindegi batean, adibidez:

Welchen Kuchen möchten Sie? **Den da**, bitte.

Jakina, atzamarrak erakutsi behar diozu zein den nahi duzun pastela.

Pertsonak direnean, *die da* edo *der hier* askotan ez dira erabiltzen. Pertsonen mespretxua egiten baitaie.

12.1. "das" als Demonstrativpronomen

Ziur, *das* artikuluen artean ikusten duzuela askotan, baina ez du beti artikularen funtzioa betetzen. Izan-aditzarekin begiratu:

Das ist Peter.

Hemen aurkezpena egiten da, Peter nor den erakusten da. Nahiz eta Peter gizonetako izan, *das* erabiltzen da. *Das* erakuslea da perpaus honetan. Berdin emakumezkoa edo jende gehiago aurkezten badira:

Das ist Susanne.

Das sind Peter und Susanne.

Edo gauzak:

Das ist die Schultasche.

Das sind die Bücher.

Adjektiboekin ere *das* erabiltzen da. Begiratu:

Das ist prima. **Das** ist blöd.

Zeri dagokio *das*? Adibidez: *Skifahren?* **Das** ist prima.



Wir üben:

1. Was braucht Ottopatxi zum Fernsehen?

Egin esaldiak; esan Ottopatxiren zera (gauza) hori bere alboan edo urrun dagoen. Adibidez:



Er braucht das Sofa *da*.

Und die Hausschuhe, die Erdnüsse, die Decke, das Kissen, die Limonade, das Popkorn?

			<i>hier</i>	<i>da</i>

GR 13

Akkusativ

Aditza iragankorra denean, subjektua, aditza eta objektua dira perpaus bakunaren osatzaileak.

Adibidez, *schlafen*-ek ez du subjektua baino behar, nork lo egin duen edo nor dagoen lo jakin behar da.

Sein aditzak ere ez darama osagarri zuzenik (Akkusativ), nominatiboa baizik (subjektuari buruzko zehaztasunak), aditz iragangaitza delako.




Das ist Peter.

Er ist Ottopatxis Freund.

Sehen aditzak, ordea, argibide gehiago eskatzen du: nor/zer ikusi duen nork. Nork subjektua dela badakigu jadanik. Ikusi den gauza edo pertsona osagarri zuzena da hemen, hau da *Akkusativa*. Perpaus bakunean gehienetan agertzen dena da.

◇ Ikus. *Dativ* buruzko argibide gehiago GR 15. *Dativen* fitxan.



Ottopatxi (wer?) sieht das Haus (was?).

Ottopatxi (wer?) sieht den Jungen (wen?).

Objektua zein den, artikulua argitzen digu, deklinatu egin behar baita. Izenaren ordezt pertsona-izenordaina badago, hori ere deklinatu egiten da. Beraz, edo objektuaren izena edo haren pertsona-izenordaina jarri behar da beti.

Gauzentzat: *Was?* (*ein Haus*) eta pertsonentzat: *Wen?* (*den Jungen*) galdeztzen da, *Akkusativ* denean.

Üben wir:

1. *Nominativ* oder *Akkusativ*?

Begiratu beheko esaldiok. Konturatu zarete subjektua eta osagarria daukatela.

